



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2014IPLE0008

Eguna: 2014-07-23

Ordua: 18:00 – 18:30

Tokia: Areto nagusia

Bertaratuak

- Andoni Gartzia Arruabarrena	BILDU
- Maite Olatziregi Esparza	BILDU
- Agin Laburu Rezola	BILDU
- Ione Olatziregi Mendiorotz	BILDU
- Isabel Otero Glorie	BILDU
- Raul Redín Hernández	BILDU
- Zorione Etxezarraga Ortuondo	EAJ-PNV
- Bixente Arrizabalaga Bengoetxea	Hamaikabat

Bertaratu ez direnak

- Berta Arozena Bergara	BILDU
- Ramón Aranzasti Loyarte	EAJ-PNV
- Imanol Lizarralde Marín	Hamaikabat

Idazkaria

- Xabin Olaizola Lasa

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / Nº	ORDEN DEL DIA
2014ko ekainaren 26ko aktaren onarpena	1	Aprobación del acta de 26 de junio de 2.014
2013ko Kontu Orokorraren onarpena	2	Aprobación de la Cuenta General 2013
Aurrekin poliza Astigarragako udalak Astigarraga Lantzen EAri emandakoa berritzea	3	Renovación de póliza de anticipo otorgado por el ayuntamiento a Astigarraga Lantzen, S.A.
Garbitania: Hernaniko udalaren 22	4	Garbitania: propuesta de compra de 22



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

partzipazioen erosketa proposamena		participaciones al Ayuntamiento de Hernani
Kredituen arteko 2. aldaketa: krediduen arteko transferentzia	5	2ª modificación de créditos 2014: transferencia de créditos
Kredituen arteko 3. aldaketa: kreditu gehigarria	6	3ª modificación de créditos: crédito adicional

Esan-eginak eta erabakiak

1. 2014ko ekainaren 26ko aktaren onarpena

5. puntuan txertatutakoarekin: ingurumen departamentuari dagozkion izaera pertsonaleko datu-fitxategiak sortzea onartu da; bestalde, 2014ko ekainaren 26ko akta onartzeko bozkatu ondoren, onartu egin da Agin Laburu zinegotziaren abstentzioarekin eta gainerako zinegotzien aldeko botoarekin.

1. Aprobación del acta de 26 de junio de 2.014

Con la incorporación al punto 5: se aprueba la creación de ficheros de datos de carácter personal del departamento de medio ambiente, se somete a su aprobación el acta de 26 de junio de 2014, que con la abstención del concejal Agin Laburu y el voto favorable del resto de concejales queda aprobada dicha acta.

2. 2013ko Kontu Orokorren onarpena

Ogasun batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakiak har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

1.- 2013ko Kontu Orokorra onartzea.

2.- 21/2003 Foru Arauak 63.4 artikulua xedatzen duenaren arabera Udalak behar bezala onetsitako Kontu Orokorren berri emango dio Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, haren arautegian berariaz ezarritakoaren arabera.

2. Aprobación de la Cuenta General 2013

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de hacienda, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

1.- Aprobar la Cuenta General 2013.

2.- En virtud de lo dispuesto en el artículo 63.4 de la Norma Foral 21/2003, el Ayuntamiento debe informar al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas de la Cuenta General que ha aprobado, tal como se dispone expresamente en su normativa.

Zorionek adierazi du ados dagoela Kontu Orokorra formalizatzearekin eta hori onartzearen aldeko botoa emango duela. Bixente Arrizabalaga zinegotziak adierazi du kultura-arloko diru-laguntzen zenbait

Zorione señala que está de acuerdo con la formalización de la Cuenta General y que va a votar su aprobación.

El concejal Bixente Arrizabalaga señala que determinados gastos de subvenciones



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

gastu ez direla fakturaren bidez egiaztatu eta hori dela-eta, abstenitu egingo dela. Alkateak erantzun du diru-laguntzen gastuen egiaztapena aurreko urteetan egin izan den moduan egin dela, eta, beraz, gastu horiek justifikatuta daudela.

de cultura no se han acreditado con factura por lo que se va a abstener.

El alcalde contesta que la acreditación de los gastos de las subvenciones de cultura se han realizado como en años precedentes y están justificadas.

Irizpena bozkatu eta Bixente Arrizabalaga zinegotziaren abstentzioarekin eta gainerako zinegotzien aldeko botoekin onartu da.

Sometida a votación el dictamen con la abstención del concejal Bixente Arrizabalaga y el voto favorable del resto de concejales es aprobado dicho dictamen.

3. Aurrekin poliza Astigarragako udalak Astigarraga Lantzen Eari emandakoa berritzea

3. Renovación de póliza de anticipo otorgado por el ayuntamiento a Astigarraga Lantzen, S.A.

Ogasun batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakiak har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de hacienda, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

1.- 2011an Astigarraga Lantzenekin sinatutako Aurrerakin Poliza 579.686,19 €koa 3 urte gehiago luzatzea, epe muga 2017-07-23 izanik.

1.- Prorrogar en 3 años la póliza de anticipo de 579.686,19 € firmada con Astigarraga Lantzen en 2011, siendo el límite del plazo el 23-07-2017.

2.- Hitzarmena bere horretan onartua izatea bai osoko bilkuran eta baita Astigarraga Lantzeneko Batzar Orokorrean ere.

2.- Aprobar el convenio tal y como está en la actualidad, tanto en el Pleno como en la Asamblea General de Astigarraga Lantzen.

Bixente Arrizabalaga zinegotziak adierazi du azken 3 urte horietan ez dela ezer egin Astigarraga Lantzen SAn, hau da, ez direla lursailak kudeatu eta ez duela Lantzenek ordainduko duela bermatzen duen inongo bideragarritasun-planen berririk; beraz, aurkako botoa emango du.

El concejal Bixente Arrizabalaga señala que en estos 3 años no se ha hecho nada en Astigarraga Lantzen SA, no se ha gestionado los terrenos y no ve ningún plan de viabilidad que garantice el pago de Lantzen, por lo que votará en contra.

Alkateak gaineratu du azken 3 urteetan ez dela gasturik sortu aurreko legealdian gertatu zen moduan, gaia jorratzen ari direla eta, beraz, beharrezkoa dela proposatutako epe-luzapena onartzea.

El alcalde señala que en estos 3 últimos años no se han generado pérdidas como en la legislatura anterior y que están trabajando el tema, por lo que se hace necesario aprobar la ampliación del plazo que se propone.

H1! taldearen aurkako botoarekin eta gainerako zinegotzien aldeko botoekin onartu da irizpena.

Con el voto en contra de H1!, y voto favorable del resto de concejales se aprueba el dictamen.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

4. Garbitania: Hernaniko udalaren 22 partizipazioen eresketa proposamena

4. Garbitania: propuesta de compra de 22 participaciones al Ayuntamiento de Hernani

Ogasun batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakiak har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de hacienda, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

1.- Hernaniko udalari erostea 22 partizipazio Garbitania Zero Zabor S.M. hain zuzen, berrehun eta berrogeita hamaikatik (251) berrehun eta hirurogeita hamabi (272) bitarte, biak barne, prezio 22.000 €koa izanik.

1.- Comprar al Ayuntamiento de Hernani 22 participaciones (desde la doscientas cincuenta y una, 251, hasta la doscientas setenta y dos, 272, ambas incluidas), al precio de 22.000 €.

2.- Aipaturiko eresketa 1.0900.852.442.11.01.2014 kontu-sailaren kargura egitea.

2.- Efectuar dicha compra a cargo de la cuenta 1.0900.852.442.11.01.2014.

3.- Alkateari baimentzea behar adinako dokumentuak sinatzeko aipaturiko eresketa gauzatzeko.

3.- Autorizar al alcalde para que firme todos los documentos necesarios para materializar dicha compra.

Zorione zinegotziak adierazi du kontu-hartzaileak emandako txostenaren arabera egindako eresketa-proposamena batez ere Hernaniko Udalaren onerako izango dela, eta bere ustez, Hernanik parte-hartzea bere gain hartu behar duela; amaitzeko esan du bere taldea ez dagoela enpresa horri laguntzearen alde.

Señala la concejal Zorione que de acuerdo al informe emitido por el interventor la propuesta de compra que se hace beneficiará especialmente al ayuntamiento de Hernani, y entiende que Hernani tiene que asumir su participación, y concluye señalando que su grupo no está por apoyar a esta empresa.

Bixente Arrizabalaga zinegotziak adierazi du egoera hau atez ateko bilketaren inposizioaren ondorioa dela, eta proposamen horren aurka daudela.

El concejal Bixente Arrizabalaga señala que esto es consecuencia de la imposición del PaP y que están en contra de esta propuesta.

Irizpena onartu da EHBilduren aldeko 6 botoekin eta gainerako taldeen aurkako 2 botoekin.

Con los 6 votos favorables de EHBildu y 2 votos en contra del resto de grupos se aprueba el dictamen.

5. Kredituen arteko 2. aldaketa: kredituen arteko transferentzia

5. 2ª modificación de créditos 2014: transferencia de créditos

Ogasun batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakia har

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de hacienda, proponiendo la



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

dezaten proposatzen da irizpen horretan: adopción del siguiente acuerdo:

1.- Kredituen arteko transferentzia 1-2014, 156.278 €ko transferentzia onartzea, kontu-hartzaileak eginiko txostenaren arabera.

1.- Aprobar la transferencia de 156.278 € de la transferencia de créditos 1-2014, según el informe del interventor.

Zorione zinegotziak adierazi du transferentziak ikastolari eta merkataritzari lotutako partidak biltzen dituela, eta, beraz, aldeko botoa emango dutela.

La concejal Zorione señala que la transferencia recoge partidas que hacen referencia a la ikastola y comercio, y van a votar a favor.

Bixente Arrizabalaga zinegotziak esan duenez, ez dago ados finantzaketa langile-gastuak murriztuta egitearekin (zehazki, idazkari-lanpostuaren esleipenari dagokiona murriztuta), eta, beraz, abstenitu egingo da.

El concejal Bixente Arrizabalaga señala que no está de acuerdo que la financiación se haga con minoración de gasto de personal, en concreto la referida a la consignación para la plaza de secretario y se abstendrá.

Bozkatu ondoren, irizpena onartu da aldeko 7 botorekin (6 EHBildu, 1 EAJ/PNV), eta H1! taldearen abstentzioko boto batekin.

Sometido a votación el dictamen es aprobado con 7 votos a favor de (6 EHBildu, 1 EAJ/PNV) y 1 voto de abstención de H1!.

6. Kredituen arteko 3. aldaketa: kreditu gehigarria

6. 3ª modificación de créditos: crédito adicional

Ogasun batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakiak har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de hacienda, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

1.- 367.594,72 €ko kreditu gehigarria onartzea kontu-hartzaileak bere txostenean zehaztutakoaren arabera.

1.- Aprobar el crédito adicional de 367.594,72 €, según lo detallado en el informe del interventor.

2.- 21/2003 Foru Arauak xedatzen duenaren arabera hamabost laneguneko epea zabaltzea alegazio edo erreklamazioak bideratzeko. Jendaurreko epean erreklamaziorik aurkezten ez badira, espedientea onartutzat emango da beste erabakirik hartu gabe.

2.- Abrir un plazo de quince días laborables para las alegaciones y reclamaciones, según se dispone en la Norma Foral 21/2003. Si en el plazo de exposición pública no se presentaran reclamaciones, el expediente se consideraría aprobado sin tener que tomar mas acuerdos.

3.- 1/2013 Foru Arauaren 5. artikuluan xedatutakoari jarraiki Osoko Bilkurari kontu-hartzailearen txostenaren berri eman zaio, eta bertan adierazten da 2014ko behin betiko aurrekontuan jasotako

3.- En virtud de lo dispuesto en el artículo 5 de la Norma Foral 1/2013, hay que informar al Pleno del informe del interventor; en dicho informe se señala que las necesidades de financiación que se



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

finantzaketa beharrak ez duela behartuko 2014ko aurrekontua eta horretan aurrekontuaren egonkortasuneko helburua betetzea aurreikusten duela.

recogen en el presupuesto definitivo del 2014 no van a condicionar el presupuesto del 2014 y que se prevee cumplir el objetivo de estabilidad presupuestaria.

4.- Udaleko kontu-hartzaileak egindako txostena onartzea; txosten horretan, kreditu gehigarrian kredituak aldatzearen (367.594,72 €) aldeko irizpena eman du. Txostenaren arabera, espedientearen finantzaketa egiaztatzen da baina 2014. urteko kreditu-aldaketekin behin betiko aurrekontua defizit-egoeran geratzen dela adierazi du, aurrekontu-egonkortasunari dagokionez; 587.892,28 €, finantzaketa beharrean geratuko litzateke, baina ez litzateke plan ekonomiko finantzariorik egin behar, finantzaketa bermatuta geratu baita diruzaintzako soberakinaren bitartez, eta beraz, 1/203 Foru Arauak 5. artikuluan xedatutakoaren arabera nahikoa izango da txostenaren berri Osoko Bilkurari ematea.

4.- Aprobar el informe del interventor del Ayuntamiento, informe en el que se emite dictamen a favor de modificar créditos en el crédito adicional (367.594,72 €). Según el informe, se confirma la financiación del expediente, pero con la modificación de créditos del 2014, se genera situación de déficit en el presupuesto definitivo con respecto a la estabilidad presupuestaria, es decir, se generaría una necesidad de financiación de 587.892,28 €; de todas formas, no habría que realizar un plan económico-financiero por que la financiación está garantizada gracias al excedente de tesorería, y por tanto, será suficiente con presentar el informe en el Pleno, tal como se dispone en el artículo 5 de la Norma Foral 1/2013.

Zorione zinegotziak adierazi du Herri Baratzaren eta kirol-inbertsioen inguruko zenbait alderdi argitu eta gero, aldeko botoa emango dutela.

La concejal Zorione señala que van a votar a favor, una vez aclarados aspectos relativos a la Herri Baratza y las inversiones deportivas.

Bixente zinegotziak adierazi du abstenitu egingo dela, partida batekin bat ez badator ere, partiden multzoa bozkatu behar delako.

El concejal Bixente señala que se va a abstener dado que hay que votar la globalidad de partidas y con una no está de acuerdo.

Bozkatu ondoren, irizpena onartu da aldeko 7 botorekin (6 EHBildu, 1 EAJ/PNV), eta H1! taldearen abstentzioko boto batekin.

Sometido a votación el dictamen es aprobado con 7 votos a favor de (6 EHBildu, 1 EAJ/PNV) y 1 voto de abstención de H1!.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2014ko uztailaren 23an

Xabin Olaizola Lasa
Idazkaria